

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2022 000002202

Espediente-zenbakia: 2021/IDA_ERA_0265**Xedea**

Busturialdea Eskualdean enpresetan kontratazioak egiteko dirulaguntzaren ebazpen proposamena.

Aurrekariak

Lehenengoa: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, 2021eko ekainaren 16an, enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza-deialdia argitaratu zuen.

Bigarrena: 2021eko uztailaren 17an, Bermeoko Udalak Busturialdeko udalen izenean, dirulaguntza eskatu zuen.

Hirugarrena: 2021eko azaroaren 15ean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ebazpena jaso zen Busturialdea Eskualdean enpresetan kontratazioak egiteko 274.852,96 euroko dirulaguntza onartuz.

Laugarrena: Bermeoko Udalak, 2021eko abenduaren 28an BAO. 248 zenbakian, kontrataziorako laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko egindako tokiko ekintzetarako laguntza deialdiaren esparruan, Busturialdeko enpresetan kontratatzeke argitaratu zituen. BDNS (Identif.): 601072

Bosgarrena: 2021eko abenduaren 29tik 2022ko apirilaren 1era arte eskabidea egiteko epea zabalik egon da. Eskariak aurkezteko epean 108 eskabide eta 132 kontratu aurkeztu dira.

Seigarrena: 2022ko maiatzaren 17an, errekerimendua bidali zaie dokumentazio falta eduki dituztenei, denetara 96 errekerimendu bidali dira.

Zazpigarrena: Kontu hartzaileak aldeko txostena egin du.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E6000A0B5E0010Z5F6U0A9O8

Sinadurea eta data

ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 27/06/2022
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 27/06/2022
13:37:07

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0265

Data: 01/12/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Argudioak

Lehenengoa: Kreditua dago 2022-01000-43300-4710091 Beste enpresa batzuei aurrekontu partidan.

Bigarrena: Laguntza eskatu duten enpresek dirulaguntza jasotzeko eskatzen diren baldintza eta eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu da.

Hirugarrena: 2021eko abenduaren 28an BAO. 248. zenbakian argitaratutako oinarrietan eta 4. artikuluan oinarrituta, puntuazioa egin da.

Laugarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua b), f) eta r) atalen arabera, alkatearen ahalmenekoa da, baina 2022ko ekainaren 16ko 2.037 zenbakidun Alkatetza Dekretu onartutako delegazioen eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileen arabera, Alkateari jagoko.

Erabagia

Goian aipatutako guztia kontutan hartuta, honakoa erabagi dut:

LEHENENGOA: Busturialdea Eskualdean enpresetan kontratazio egiteko dirulaguntzen ebazpena egitea. Hurrengo taulan agertzen diren enpresen eskabideak onartzea eta dirulaguntza onartzea. **(I. Eranskina)**

BIGARRENA: Hurrengo taulan agertzen diren enpresen eskabideak Erreserban gelditzea dirulaguntzaren kreditua agortzeagatik. **(II. Eranskina)**

HIRUGARRENA: Hurrengo taulan agertzen diren enpresen eskabideak ez onartzea taulan bertan adierazten diren arrazoiengatik. **(III. Eranskina)**

LAUGARRENA: Interesdunei erabakiaren berri ematea eta 9. Artikuluari jarraituz justifikazioa egin behar dutela ohartaraztea.

BOSGARRENA: Diruzaintza Sailari eta Kontabilitate Sailari erabaki honen berri ematea.

SEIGARRENA: Erabakia dirulaguntzen base nazionalen argitaratzeko agindua ematea Merkataritza, Sustapen eta Turismo Sailari.

ZAZPIGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinean .

